

ILUSIÑUAREN URTIA

Juanjo Madinabeitia, "Mondra" ezizenez ezaguna, laugarren denboraldixa hasi dau Ermua C.D. taldearen lehendakari modura. Aurtengoa izan leike bere azken denboraldixa lehendakari modura eta argi dauka zein dan bere helbururik nagusiena: Ermua Hirugarren Maillan jokatzeko ikustia. Dena den, hau lortu edo ez lortu bardin litzateke, jakin badakielako bera eta bere zuzendaritzak lorturiko gauzarik garrantzitsuena Ermua eta UDSA elkartzea izan dala, kirol mailako etorkizun parebakoa ekarri ahal deusolako Ermuko futbolari.

-Zenbat urte daroiazuz Ermua CD taldiaren lehendakari modura?
-Hiru urte presidente modura.

-Zegaittik sartu zineen zu eta zure koadrilla saltsa honetan?

-Ermua bajatu zen "Primera Regionalera" eta ikusten zan etzegoala interes haundia Junta aldetik eta horregaittik hartu gendun guk.

-Zein zenduen ordungo helbururik premiazkoena?

-Ermua igotzea zan gure helburua eta lehenengotikan igo gendun.

-Zelakua da oraiñarteko balantzia?

-Balantzia ederra benetan. Lehenengo urtian igo, bigarrenian laugarren edo bostgarren postuan eta azkenengo urtian seigarren. "O sea ke" ni, neretzako, oso ona da oraiñarteko balantzia.

-Aurtengo denboraldixari begira aldaketarik nabarmenena entrenatzailearena da. Zer esan ahal dozu

oraingoz ikusitakoari buruz?

-Entrenadore barrixak ez dakigu zer emongo daben. Ni Manolokin pozik naoen. Gauzia da entrenadore barrixak ekipua beti aldatzen dauela zeozer. Entrenameta edo ez dakit zegaittik dan, baiño oingo urtian behintzat ondo hasi gara. Lehenengo partidua irabazitxa ba nik uste dot entrenadoriak be gustora hartu dauela ekipua.

-Eta ekipua zelakua da?

-Ermuako ekipua ikusgarrixa da. Laguntasun demasa dao taldian eta hori gauza haundixa da. Nik, neretzako, uste dot, hau ja laugarren urtia da oinguz, ta neretzako igo ein bihar gara.

-Badauka Ermuak lekuri

Hirugarren Maillan?

-Hirugarren Maillan partidu asko ikusi dot da ez dago halako diferentziarik jokuan zegaittik Hirugarren Maillan laga itxen dabie jokatzen askoz geixo futbolian. Jokatzeko dakienak jokatu ahal dau, eta Ermuak ondo jokatzen dau. Ez dauko mutil haundirik, baiña futbolian asko itxen dau. Eta ni, neretzako, oingo urtia azkena izango da Preferentian egoteko.

-Eta azpiegituraren aldetik?

-Hirugarren Maillan gastuak eta horrek gauzok haundixauak izango dia, "Klaro!", baiña nik gura dot Ermuak Hirugarren Maillan jokatzea Gipuzkuako ekipo guztixak pasatu daizen san Pelaixotik, Mondragon, Elgoibar, Hernani, Tolosa... horrek danok, zegaittik behin be ez dabie jokatu eta afiziñuari be emon ein bihar jako aspiraziño bat, poztasun bat, eta ekipo horrek Ermuan ikustia gauza haundixa da..

"Ermuko ekipua ikusgarrixa da, eta neretzako. Oingo urtia azkena izango da preferentian egoteko"

OUTUMURO KAFETEGIA

- KAFE BEREZIAK
- TARTA NATURALAK
- AUKERA HAUNDIA TE ETA INFUSIOETAN

Kopi-Fax

**Kopistegia
Papertegia**

Torrekua, z/g. 48260 ERMUA
Tfnoa. eta Faxe: (943) 17 42 89

**ELEKTRIZITATEA
ZUBIAURRE**

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61
48260 ERMUA


-Diru nahiko izango al da?
-Nik uste baietz. Ein bihar dana da ekipuari antzera pagatzia, ez prometidu gauza haundixak eta gero ezin pagau. Ta gero, Udaletxiak be oingo urtian, apur bat kanbixau dau. Ja gure alde dao, laguntasunakin. Hirugarren Maillan be kuotia igo leike, sarrerak be izango dia pixkat karutxuo. Neretzako defendidu geinkie.

-Zelan dago bazkide kopurua?

-600 bazkide dittugu baiña justotxo gabiz, 800ekin hobeto. Eta gero ja, Hirugarren Maillan izango litzateke politxa millatik gora. Eta hau nik uste lortu leike zegaittik Ermuan 18.000 pertsona dao.

-Instalakuntzei dagokienez, zer falta dau San Pelaixok igoera lortzen bada?

-Hirugarren maillan egoteko bihar da bedarra eta bedarra izatea oso gatzia ikusten dogu, zegaittik bedarra zaintzeko, zortzi ekipuekin, bihar da gitxienik beste kanpo bat eta bedarra be zaindu ondo domekako partidurako bakarrik, bestela ezin leike izan. Oin, beste gauza bat ona dao, artifiziala, baiña esaten dabie 80 milloi kostatzen dala, drenajiaz, eta guk badaukou drenajia. Hau izango litzake bentaja ikusgarrixa Ermuandako, 15 urteko garantixa emoten dabilako eguneko 24 ordutan.



Ermua futbol taldeko lehendakaria

Nik konprenitzen dot, baiña, diru asko dala eta Udaletxiak gauza asko dauko eitteko.

-Futbolaz aparte, Ermua CDk erakunde moduan pelota eta mendikirola zittuen bere baitan. Atal bi horrei ekitteko asmorik badakazue?

-Ikusita laguntzak dagozala, pelotia hartu leike zegaittik penagarrixa da Ermua izan dana "Interpueblos"etan, oin desagertuta egotia. Nik la-

guntasuna euki ezker, hartuko neuke pelotia.

-Dena den, futbola bera bakarrik be edozein erretzeko gai da, ezta?

-Alde batetik bai eta bestaldetik ez. Hau drogia moduan hartzen dozu, afiziño moduan hartuta eitten dozu lau urte edo zortzi urte. Hau laugarrena da eta normalian lau urtekin kanbixau eitten da. Nik jendia ikusten badot, kapazitauta, gure moduan lan eitteko edo hobeto,

nik itziko neuke bixar bertan. Nik beste lanak daukadaz eta afiziñogaittik eitten dot, Ermuagaittik.

-Eta Ermuko biztanlegoak merezi dau hainbesteko buruhauste?

-Ermuko jendia oso ondo portatu da, eta eskerrak, 14 milloiko presupuestuakin eta daukaguzan dirulaguntzekin, bestela ezin leike. Dirua ataratzeko bihar asko ein bihar da errifak saltzen bai jendiari, tabernetan eta horrela; Ermuko jendia oso ondo portatu da. Gero be Juntan jende ederra dao, ointxe jende asko gaoz, 18 bat, eta danak eitten dabie biharra oso ondo.

-Ermua CD eta UDSAren arteko elkartzea zuek bulzatutako ideia da. Aurtengo denboraldixan martxan jarri da, baina honezkero izango dozu baloraziñoren bat einda.

-Oso gauza haundixa izan da eta oso ondo doa. Dena oso ondo konpondu da. Eta konpontze honen ondorioa gero ikusiko da, hemendik urte parera ikusiko da kirol maillan. Neretzako haxe da guk eindako gauza onena.

-Bukatzeo, zein dozu hasi barri dan liga honetako ilusiñorik haundixena?

-Nik dakat ilusiñua, baiña demasa, oingo urtian igotzeko.

Iñaki Moreno

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11

Bitxitegia

IGANE

VI Centenario, 19 Tfnoa. 17 46 34
48260 ERMUA